

## 100 kw-ko potentzia gainditzen duten instalazioetarako erantsi beharreko txostena (Pizgarri-programa guztietarako)

Ekainaren 29ko 477/2021 Errege Dekretuaren IIE.A1 Eranskinak zehazten du laguntza-eskaera egiteko behar den dokumentazio orokorra, pizgarri-programa guztiei aplikatzekoa. Zehazki, IIE.A1 Eranskin horren e) puntuak ezartzen duenez, pizgarri-programa guztietarako, betiere instalazioek 100 kW-ko potentzia izendatua gainditzen badute (100 kWp instalazio fotovoltaikoen kasuan), txosten bat aurkeztu behar da, honako dokumentu hauekin batera:

- i. *Plan estrategiko bat, instalazioko osagaien jatorria edo fabrikazio-tokia (nazionala, Europakoa edo nazioartekoa) eta haien ingurumen-inpaktua adieraziko duena, biltegitratzea, osagai bakoitza hautatzeko erabilitako kalitate- edo iraunkortasun-irizpideak, instalazioaren interoperatibitatea edo sistemari zerbitzuak eskaintzeko duen ahalmena barne, baita aurreikuspenen arabera proiektuak ETEak eta autonomoak bultzatzeko izango duen eragina ere. Toki-enpleguan eta tokiko, eskualdeko eta Estatuko industriako balio-katearen gaineko estimazioak ere barne hartzeko aukera izango du. Laguntzen deialdia egiten duen agintariak argitaratuko du dokumentu hori.*
- ii. *Proiektuak kalte esanguratsurik ez eragitearen printzipioa betetzearen justifikazioa, (EB) 2019/2088 Erregelamendua aldatzen duen inbertsio jasangarriak errazteko esparru bat ezartzeari buruzko 2020ko ekainaren 18ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren (EB) 2020/852 Erregelamenduan ezarritako ingurumen-helburuei dagokienez. Kasu horretan, jarduketak 100 kW-ko potentzia gainditzen ez badu, betetze horren erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu beharko du eskatzaileak. Xede horretarako, Energia Dibertsifikatzeko eta Aurrezteko Institutuak gida batzuk argitara ditzake, justifikazio horren elaborazioa errazteko.*
- iii. *Egindako obra zibiletan sortutako eraikuntza- eta eraispent-hondakinen %70eko balorizazioa betetzen dela behar bezala egiaztatzeko, laborpen-memoria bat aurkeztuko da, non sortutako hondakinen kantitate osoa adieraziko den LER kodeen arabera sailkatuta, baita helmugako kudeatzaileen ziurtagiriak ere, lortutako balorizazio-ehunekoa adierazita. Balorizatu ezin daitezkeen hondakin arriskutsuak ez dira kontuan hartuko helburu hori lortzeko.*

*Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan energia-iturri berriztagarrien bidezko autokontsumoari eta biltegitratzeari eta bizitegi-sektorean sistema tekniko berriztagarriak ezartzeari lotutako pizgarri-programak egikaritzeko autonomia-erkidegoei eta Ceutako eta Melillako hiriei laguntzak zuzenean ematea onartzen duen ekainaren 29ko 477/2021 Errege Dekretuaren eta Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan ekonomiaren hainbat sektoretan energia berriztagarri termikoen instalazioak ezartzeko pizgarri-programak egikaritzeko autonomia-erkidegoei eta Ceutako eta Melillako hiriei laguntzak zuzenean ematea onartzen duen abenduaren 21eko 1124/2021 Errege Dekretuaren onuradunen tipologia zabaltzen duen maiatzaren 17ko 377/2022 Errege Dekretuak ekainaren 29ko 477/2021 Errege Dekretuaren 20. artikulua 4. zenbakia aldatu du, eta honela idatzita geratu da:*

*“4. Horrez gain, 100 kW-tik gorako potentzia izendatuko sorkuntza-instalazioetarako, plan estrategiko bat aurkeztuko da, instalazioko osagaien jatorria edo fabrikazio-tokia (nazionala, Europakoa edo nazioartekoa) eta haien ingurumen-inpaktua adieraziko duena, biltegitratzea, osagai bakoitza hautatzeko erabilitako kalitate- edo iraunkortasun-irizpideak, instalazioaren interoperatibitatea edo sistemari zerbitzuak eskaintzeko duen ahalmena adierazita, baita aurreikuspenen arabera proiektuak ETEen eta autonomoak bultzatzeko izango duen eragina ere. Bereziki, Europar Batasunaren autonomia estrategiko eta digitalaren helburuarekiko ekarpena hartu beharko du barne, baita hornidura-katearen segurtasunaren bermearekiko ekarpena ere, nazioarteko testuingurua eta soluzioaren parte izan daitekeen edozein osagai edo azpisistema teknologiko sentikorren eskuragarritasuna kontuan hartuz, Europar Batasunean kokatutako hornitzaileei lotutako softwarea, ekipoak, osagaiak eta sistema-integrazioak eskuratuz.*

*Toki-enpleguan eta tokiko, eskualdeko eta Estatuko industriako balio-katearen gaineko estimazioak ere barne hartzeko aukera izango du.”*

Dokumentu honek eskatzailea gidatu nahi du, puntu horretan eskatzeko txostena prestatzeko lanetan.

**Plan estrategikoa 100 kW-ko potentzia izendatua gainditzen duten  
instalazioetarako  
(pizgarri-programa guztietarako)**

.....  
jaunak/andreak (IFZ/AIZ: ....., komunikazio hauetarako helbidea:  
....., herria: ....., PK:  
....., probintzia:....., telefonoa ..... helbide  
elektronikoa: .....), bere izenean edo honako hau  
ordezkatuz (sozietatearen izena: ....., IFZ:  
....., helbidea: .....  
..... herria: ....., PK: ....., Probintzia:  
....., Telefonoa:....., helbide elektronikoa:  
.....)

Ordezkaritza honako dokumentuaren/egintzaren arabera egikaritzen da:  
..... (adierazi ordezkari-ahalmena ematen duen dokumentua edo  
egintza).

Ekainaren 29ko 477/2021 Errege Dekretuari lotutako laguntzen ..... pizgarri-programarako eskaera  
aurkeztu du, .....  
izeneko proiektua egikaritzeko; proiektu horren ezaugarriak honako hauek dira:

**1. Instalazioaren datu orokorrak**

Instalazio mota:  Sorkuntza  
 Biltegitratzea  
 Sorkuntza eta biltegitratzea

**2. Ekipamendu nagusien jatorria eta/edo fabrikazio-tokia**

Ekipamendua/osagaia	Marka eta modelo <sup>1</sup>	Jatorrizko herrialdea <sup>2</sup>

<sup>1</sup> Erantsi fabrikazio-ziurtagiriak eta/edo horien adostasun-adierazpena, horrelakorik edukiz gero.  
<sup>2</sup> Jatorri nazionalakoak izanez gero, jatorrizko autonomia-erkidegoa eta probintzia adierazi beharko dira.

### 3. Ekipamendu nagusien fabrikazioaren ingurumen-inpaktua

*Instalazioaren ekipamendu nagusiek fabrikazioan eragindako ingurumen-inpaktuari buruzko deskribapena:*

Ekipamendua/osagaia	Ingurumen-inpaktuaren deskribapena

### 4. Osagaiak hautatzeko erabilitako kalitate- edo iraunkortasun-irizpideen deskribapena

*Aipatutako ekipamendua edo osagaia hautatzean eskatzailearentzat lehentasunezkoak izan diren irizpideak barne hartu behar dira. Adierazi behar da irizpide nagusia ekonomikoa izan den, edo, alderantziz, beste irizpide kualitatibo batzuk aintzat hartu diren, hala nola berme hedatua, marka, fabrikatzailea, etab.*

Ekipamendua/osagaia	Hautaketan erabilitako kalitate- edo iraunkortasun-irizpidea

### 5. Instalazioaren interoperabilitatea edo sistemari zerbitzuak eskaintzeko duen ahalmena deskribatzea

*Atal honetan, Espainiako sistema elektrikoarekiko zerbitzuak deskribatu behar dira, hala nola eteteko zerbitzua, doikuntza-zerbitzua, etab. Aurreikuspenen arabera etorkizunean defini litezkeen zerbitzuak ere barne hartu behar dira.*

## **6. Proiektuak ETEetan eta autonomoengan efektu bultzatzailea eragitea espero da? Zein?**

*Proiektuaren garapenean inplikaturako eragileak labur-labur identifikatu behar dira (ingeniaritza, ekipamenduen fabrikazioa, horien instalazioa, mantentze-lanak etab.), bereziki ETEei eta autonomoei dagokienez. Eragile horiek tokikoak, eskualdekoak, nazionalak edo nazioartekoak diren adierazi behar da. Esaterako, efektu hori kuantifikatzeko, eragile bakoitzeko espero den fakturazioa erabil daiteke, baita aurrekontu osotik eragile bakoitzari esleitutako ehuneko ere.*

## **7. Tokiko enpleguaren gaineko efektua**

*Ezagutzen badira, proiektuko fase bakoitzean (ingeniaritza, ekipamenduen fabrikazioa, instalazioa, mantentze-lanak, etab.) sortutako enpleguen (tokikoak, eskualdekoak eta nazionalak) zenbatespena adierazi behar da, baita tokiko, eskualdeko eta nazioarteko balio-kate industrialaren gainean sortutakoen zenbatespena ere.*

**8. Europar Batasunaren autonomia estrategiko eta digitalaren helburuarekiko ekarpena, baita hornidura-katearen segurtasunaren bermearekiko ekarpena ere, nazioarteko testuingurua eta soluzioaren parte izan daitekeen edozein osagai edo azpisistema teknologiko sentikorren eskuragarritasuna kontuan hartuz, Europar Batasunean kokaturako hornitzaileei lotutako softwarea, ekipoak, osagaiak eta sistema-integrazioak eskuratuz.**

*Adierazi proiektuak nola laguntzen dion EBren autonomia estrategiko eta digitaleko helburuari, eta nola ziurtatzen den hornidura-katearen segurtasuna.*

Data eta eskatzailearen sinadura:

## 100 kW-ko potentzia izendatua gainditzen duten instalazioek DNSH kalte esanguratsurik ez eragiteko printzipioa betetzearen justifikazioa

.....  
 jaunak/andreak (IFZ/AIZ: ....., komunikazio hauetarako helbidea: ....., herria: ....., PK: ....., Probintzia:....., Telefonoa ..... helbide elektronikoa: .....), bere izenean edo honako hau ordezkatzuz (sozietatearen izena: ....., IFZ: ....., helbidea: ..... herria: ....., PK: ....., Probintzia: ....., Telefonoa:....., helbide elektronikoa: .....)

Ordezkaritza honako dokumentuaren/egintzaren arabera egikaritzen da: ..... (adierazi ordezkaritza-ahalmena ematen duen dokumentua edo egintza).

### 0. atala: Jarduketa guztietarako bete beharreko datu orokorrak

Jarduketaren identifikazioa (dirulaguntzaren izena)	<b>477/2021 ED</b>	477/2021 Errege Dekretua. Energia-iturri berriztagarrien bidezko autokontsumo eta biltegitratzearekin eta bizitegi-sektorean sistema termiko berriztagarriak ezartzearekin lotutako pizgarri-programak, SEEParen esparruan.
SEEParen zer osagaiari dagokio jarduera?		<b>C7:</b> Energia berriztagarriak sortzeko jarduketak. <b>C8:</b> Biltegitratze-jarduketak <b>C7/C8:</b> Energia berriztagarriak sortzeko eta biltegitratzeko jarduketak.
SEEParen osagaiaren zein neurri (eraberritzea edo inbertsioa) dagokio jarduera? Azpineurria ere adierazi, kasuan-kasuan		<b>C7.11:</b> Energia berriztagarriak sortzeko jarduketak. <b>C8.11:</b> Biltegitratze-jarduketak <b>C7.11/C8.11:</b> Energia berriztagarriak sortzeko eta biltegitratzeko jarduketak.
SEEParen neurriari (eraberritzea edo inbertsioa) edo, kasuan-kasuan, azpineurriari esleitutako klima- eta ingurumen-etiketak (VI. eranskina, 2021/241 Erregelamendua)*		<b>028:</b> Energia berriztagarria: eolikoa. <b>029:</b> Energia berriztagarria: eguzki-energia (fotovoltaikoa eta termikoa). <b>030 bis:</b> Energia berriztagarria: biomasa berotegi-efektuko gasen murrizketa handiekin <sup>3</sup> <b>032:</b> Beste energia berriztagarri batzuk (geotermia, hidrotermia eta aerotermia). <b>033:</b> Biltegitratze-sistemak
Klima-helburuetarako ekarpen-ehunekoa (%)	<b>% 100</b>	477/2021 Errege Dekretuan jasotako teknologiei dagozkien etiketa guztiek ekarpen-ehuneko bera dute klima- eta ingurumen-helburuetarako.
Ingurumen-helburuetarako ekarpen-ehunekoa (%)	<b>% 40</b>	

<sup>3</sup> Neurriaren helburua (EB) 2018/2001 Zuzentarauari jarraikiz elektrizitatea edo beroa biomasatik abiatuta produzitzearekin lotuta badago eta neurriaren helburua instalazioen berotegi-efektuko gasen emisioen gutxienez % 80ko murrizketa lortzea bada biomasaren erabilerari esker berotegi-efektuko gasak eta (EB) 2018/2001 Zuzentarauaren VI. eranskinean ezarritako erreferentziako erregai fosilak murrizteko metodologiari dagokionez.

Justifikatu jarduera hautatutako etiketarekin bat etortzearen arrazoia

Jarduketaren teknologia(k) bat dator/datoz hautatutako teknologi(ar)ekin.

Egiaztatu<sup>4</sup>

## ADIERAZTEN DU

Goian adierazitako jarduketarako eskaera aurkeztu duela  
..... izeneko proiekturako.

Eskatzaileak autoebaluazio-galdesorta hau bete behar du, SEEP Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan ingurumenari kalte esanguratsurik ez eragiteko printzipioa betetzeari buruzkoa.

*[Eskatzaileak ez du atal hau bete behar]*

Jarduera ez-onargarrien zerrendan dago jarduera, MITECOren DNSHri buruzko Gida Teknikoari jarraikiz?<sup>5</sup>

Bai. Proiektua atzera bota behar da.

Ez. 2. atalera igaro, jarduerak ingurumen-inpaktu txikia duelako.

<sup>4</sup> Berotegi-efektuko gasen murrizketa handiak dituen biomasarako, instalazioa 030bis etiketari dagokiola hartuko da kontuan, "Berotegi-efektuko emisioak biomasa-instalazioetan gutxienez % 80 murriztearen justifikazioa" txostena aurkeztuz egiaztatzen bada.

<sup>5</sup> «Guía para el diseño y desarrollo de actuaciones acordes con el principio de no causar un perjuicio significativo al medio ambiente», Ministerio para la Transición Ecológica y el Reto Demográfico (MITECO, 2021).

## 2. atala: Ingurumen-inpaktu txikiko jarduerak

### a. Klima-aldaketa arintzea.

*[Eskatzaileak ez du atal hau bete behar]* proiektuak

Oso kalte txikia edo kalte nulua eragiten du klima-aldaketa arintzeko.

% 100ean betetzen du klima-aldaketa arintzeko helburua, 2021/241 Erregelamenduko VI. eranskinari jarraikiz.

2021/241 Erregelamenduko VI. eranskinaren arabera, aztergai den neurriaren etiketak % 100eko koefizientea dauka, klima-helburuen laguntzaren kalkulurako.

Funtsezko ekarpena egiten du klima-aldaketa arintzeko ingurumen-helburua betetzeko bidean, 2020/852 Erregelamenduko 10. artikulua eta haren Klimari buruzko Erregelamendu Delegatuko 1. artikulua arabera.

7. osagaia: *Energia berriztagarriak zabaldu eta integratzea*<sup>6</sup> dokumentuko 8. atalaren arabera, C7.11 neurriaren jarduketaren helburua da energia berriztagarriak zabaltzea eta ingurunean eta sektore guztietan behar bezala integratzea. Horregatik guztiatik, berotegi-efektuko gasen emisioak murrizteko lagungarri izatea espero da, (EB) 2020/852 Erregelamenduko 10. artikuluan aitortzen denez.

Horrez gain, bioenergiaren erabilera une oro bermatuko da berotegi-efektuko gasen emisioak gutxienez % 80 murriztea alternatiba fosilaren aldean, 2018/2001 Zuzentarauaren VI. eranskinaren ildo beretik. Ekainaren 29ko 477/2021 Errege Dekretuan hori ziurtatu da, teknikari eskudun batek sinatutako txosten baten aurkezpena eskatuz, non emisioen murrizketa hori egiaztatuko den.

8. osagaia: *Azpiegitura elektrikoak, sare inteligenteen sustapena eta malgutasuna eta biltegitratzea zabaltzea*<sup>7</sup> dokumentuko 8. atalaren arabera, C8.11 neurriaren jarduketetan, energia-biltegitratzea txertatzeak energia berriztagarrien integrazioa hobetzea ekarriko du berekin, eta horren eraginez, Berotegi Efectuko Gasen emisioak murriztuko dira. Horrez gain, neurriak funtsezko ekarpena egiten du klima-aldaketa arintzeko bidean, 2020/852 Erregelamenduko 10. artikulua arabera.

Aurreko bakar bat ere ez.

**Horregatik, proiektuari dagokion jarduketak (ekainaren 29ko 477/2021 Errege Dekretua) ez du funtsezko ebaluazio baten beharrik klima-aldaketa arintzeko helbururako. Eta beraz, laguntzaren xede den proiektuak ere ez du funtsezko ebaluazio baten beharrik.**

<sup>6</sup> <https://www.lamoncloa.gob.es/temas/fondos-recuperacion/Documents/16062021-Componente7.pdf>

<sup>7</sup> <https://www.lamoncloa.gob.es/temas/fondos-recuperacion/Documents/16062021-Componente8.pdf>

## b. Klima-aldaketara egokitzea.

[Eskatzaileak ez du atal hau bete behar] proiektuak

- Oso kalte txikia edo kalte nulua eragiten du klima-aldaketara egokitzeari dagokionez.

- % 100ean betetzen du klima-aldaketara egokitzeko ingurumen-helburua, 2021/241 Erregelamenduko VI. eranskinari jarraikiz.

2021/241 Erregelamenduko VI. eranskinaren arabera, aztergai den neurriaren etiketak % 100eko koefizientea dauka, klima-helburuen laguntzaren kalkulurako.

- Funtsezko ekarpena egiten du klima-aldaketara egokitzeko ingurumen-helburua betetzeko bidean, 2020/852 Erregelamenduko 11. artikulua eta haren Klimari buruzko Erregelamendu Delekatuko 2. artikulua arabera.

7. osagaia: *Energia berriztagarriak zabaldu eta integratzea*<sup>8</sup> dokumentuko 8. atalaren arabera, C7.11 neurriaren ikusmoldea aintzat hartuta (energia berriztagarriak sektore guztietan zabaltzea), neurriak ez du efektu negatiborik eragiten klima-aldaketara egokitzearen gainean; alderantziz, inpaktua positiboa dela esan daiteke.

Horrez gain, PNIEC planaren Ingurumen Azterlan Estrategikoan arreta berezia ematen zaio energia-azpiegitura berriak klima-aldaketara egokitzearen garrantziari. Ildo horretan, PNIEC eta PNACC-2 Klima Aldaketara Egokitzeko Plan Nazionala bat datozela ziurtatzen da dokumentu horretan.

Hortaz, 2020/852 Erregelamenduko 11. artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorritik, neurriak funtsezko ekarpena egiten du klima-aldaketara egokitzeko bidean.

8. osagaia: *Azpiegitura elektrikoak, sare inteligenteen sustapena eta malgutasuna eta biltegitratzea zabaltzea*<sup>9</sup> dokumentuko 8. atalari jarraikiz, sistema elektrikoaren egokitze-erronkek malgutasun handiagoa eskatzen dute, sistema horiei eta erreforma honen garapenarekin sustatuko diren sareei dagokienez. Hortaz, 2020/852 Erregelamenduko 11. artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorritik, neurriak funtsezko ekarpena egiten du klima-aldaketara egokitzeko bidean.

- Aurreko bakar bat ere ez.

**Horregatik, proiektuari dagokion jarduketak (ekainaren 29ko 477/2021 Errege Dekretua) ez du funtsezko ebaluazio baten beharrik klima-aldaketara egokitzeko helburuari dagokionez. Eta beraz, laguntzaren xede den proiektuak ere ez du funtsezko ebaluazio baten beharrik.**

<sup>8</sup> <https://www.lamoncloa.gob.es/temas/fondos-recuperacion/Documents/16062021-Componente7.pdf>

<sup>9</sup> <https://www.lamoncloa.gob.es/temas/fondos-recuperacion/Documents/16062021-Componente8.pdf>

**c. Uraren eta itsas baliabideen erabilera jasangarria eta babesaria.**

*[Eskatzaileak ez du atal hau bete behar]* proiektuak

- Oso kalte txikia edo kalte nulua eragiten du baliabide hidrikoen eta itsas baliabideen erabilera eta babesari jasangarriei dagokienez.

- Ingurumen-helburua betetzen du % 100ean, 2021/241 Erregelamenduko VI. eranskinari jarraikiz, baliabide hidrikoen eta itsas baliabideen erabilera jasangarriari eta babesari dagokienez.

- Funtsezko ekarpena egiten du baliabide hidrikoen eta itsas baliabideen erabilera jasangarriari eta babesari buruzko ingurumen-helburua betetzeko bidean, 2020/852 Erregelamenduko 12. artikuluari jarraikiz:

- Aurreko bakar bat ere ez.

**Horregatik, proiektuari dagokion jarduketak (ekainaren 29ko 477/2021 Errege Dekretua) funtsezko ebaluazio baten beharra dauka uraren eta itsas baliabideen erabilera jasangarriari eta babesari buruzko helburuari dagokionez. Eta beraz, laguntzaren xede den proiektuak ere funtsezko ebaluazio baten beharra dauka. Eskatzaileak funtsezko ebaluazio hori idatziz bete behar du, helburua zenbateraino betetzen den ebaluatzeko (jarraian).**

*[Eskatzaileak atal hau bete behar du; nola bete behar duen errazteko jarraibideak eranstean dira]*

Proiektua (i) ur-masen —azalekoak eta lur azpikoak barne— egoera egokirako edo ahalmen ekologiko egokirako, edo (ii) itsas uren ingurumen-egoera egokirako kaltegarri izatea espero da?

- Bai. Proiektua atzera botako litzateke.  
Ez. *Eman funtsezko justifikazio bat proiektuak DNSH printzipioa zergatik betetzen duen azaltzeko, baliabide hidrikoen eta itsas baliabideen erabilera eta babesari buruzko helburuari dagokionez.*
- 

Jarraibideak

*Honako kasu hauetan justifikatutzat jotzen da proiektuak DNSH printzipioa betetzen duela uraren eta itsas baliabideen erabilera jasangarri eta babesari buruzko helbururako:*

- *Proiektua Ingurumen Inpaktuko Adierazpenaren edo aplikatzekoa zaion ingurumen-figuraren jabe bada.*
- *Proiektua salbuetsita badago Ingurumen Inpaktuko Adierazpena edo aplikatzekoa zaion ingurumen-figura aurkeztetik.*
- *Proiektuak 2000/60 Zuzentaraua betetzen du, ur-politikaren eremuan Europar Batasuneko jarduketa-esparrua ezartzen duena.*

*Eskatzailearentzat ezinezkoa bada alde aurreko kasuen bitartez justifikatzea DNSH printzipioa betetzen duela, justifikazio bat aurkeztu beharko du, proiektua (i) ur-masen —azalekoak eta lur azpikoak barne— egoera*

*egokirako edo ahalmen ekologiko egokirako, edo (ii) itsas uren ingurumen-egoera egokirako kaltegarria ez dela egiaztatzeko.*

#### d. Ekonomia zirkular bateranzko trantsizioa.

[Eskatzaileak ez du atal hau bete behar] proiektuak

- Oso kalte txikia edo kalte nulua eragiten du ekonomia zirkularraren gainean, hondakinen prebentzioa eta birziklapena barne.

- % 100ean betetzen du ingurumen-helburua 2021/241 Erregelamenduko VI. eranskinari jarraikiz, ekonomia zirkular bateranzko trantsizioari dagokionez.

- Funtsezko ekarpena egiten du ekonomia zirkular bateranzko trantsizioko ingurumen-helburua betetzeko bidean, 2020/852 Erregelamenduko 13. artikuluari jarraikiz.

Ekainaren 29ko 477/2021 Errege Dekretuak ezartzen duenez, eraikinak berritzeaz arduratzen diren eragile ekonomikoek eraikuntzaren lekuan sortutako eraikuntza- eta eraispen-hondakin ez-arriskutsuen gutxienez % 70 (pisan) (2000/532/EB Erabakiak ezarritako hondakinen Europako zerrendan 17 5 4 kategorian aipatutako material naturalak alde batera utzita) beste material batzuk berrerabiltzeko, birziklatzeko eta balorizatzeke prestatzea bermatu behar dute, betetze-eragiketak barne, hondakinak beste material batzuen orde ez erabiliz gauzatutako betetze-eragiketak barne, hondakinen hierarkiarekin eta EBko eraikuntza- eta eraispen-hondakinak kudeatzeko protokoloarekin bat etorriz.

Gainera, ekainaren 29ko 477/2021 Errege Dekretuak ekipamendu erabiliak subentzionatzen ditu, betekizun batzuk betez gero.

Hortaz, ekainaren 29ko 477/2021 Errege Dekretuak, Taxonomia Erregelamenduko 13. artikulua betetzen du (Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren (EB) 2020/852 Erregelamendua, 2020ko ekainaren 18koa, inbertsio jasagarriak errazteko esparru bat ezartzeari buruzkoa eta (EB) 2019/2088 Erregelamendua aldatzen duena), jarduera ekonomiko batek ekonomia zirkularreranzko trantsizioari funtsezko ekarpen bat noiz egiten dion ezartzen duena, bereziki hondakinen birziklatzeari, berrerabilerari eta prebentzioari dagokienez.

- Aurreko bakar bat ere ez.

**Horregatik, proiektuari dagokion jarduketak (ekainaren 29ko 477/2021 Errege Dekretua) ez du funtsezko ebaluazio baten beharrik ekonomia zirkularreranzko trantsizio-helburuari dagokionez. Eta beraz, laguntzaren xede den proiektuak ere ez du funtsezko ebaluazio baten beharrik.**

**e. Atmosferaren, uraren edo luraren kutsadura prebenitu eta kontrolatzea.**

[Eskatzaileak ez du atal hau bete behar] proiektuak

- Oso kalte txikia edo kalte nulua eragiten du atmosferaren, uraren edo lurzoruaen kutsadura prebenitu eta kontrolatzeari dagokionez.

% 100ean betetzen du ingurumen-aldaketa 2021/241 Erregelamenduko VI. eranskinari jarraikiz, atmosferaren, uraren edo luraren kutsadura prebenitu eta kontrolatzeari dagokionez.

- Funtsezko ekarpena egiten du uraren edo luraren kutsadura prebenitu eta kontrolatzeko ingurumen-helburua betetzeko helburuari dagokionez, 2020/852 Erregelamenduko 14. artikuluari jarraikiz.

Ekainaren 29ko 477/2021 Errege Dekretuaren barnean hartutako proiektuek, atmosferarako, uretarako edo lurerrako berotegi-efektuko gasez bestelako emisio kutsatzaileak murrizten dituzte. Proiektu horiek Taxonomia Erregelamenduko egintza delegatua betetzen dute, baita 2020/852 Erregelamenduko 14. artikuluan ezarritakoa ere.

- Aurreko bakar bat ere ez.

**Horregatik, proiektuari dagokion jarduketak (ekainaren 29ko 477/2021 Errege Dekretua) ez du funtsezko ebaluazio baten beharrik atmosferaren, luraren edo uraren kutsadura prebenitu eta kontrolatzeko helburuari dagokionez. Eta beraz, laguntzaren xede den proiektuak ere ez du funtsezko ebaluazio baten beharrik.**

**f. Biodibertsitatea eta ekosistemak babestea eta lehengoratztea.**

[Eskatzaileak ez du atal hau bete behar] proiektuak

- Oso kalte txikia edo nulua eragiten du biodibertsitatea eta ekosistemak babestearen eta lehengoratzearen gainean.

- % 100ean betetzen du ingurumen-helburua 2021/241 Erregelamenduko VI. eranskinari jarraikiz, atmosferaren, uraren edo lurraren kutsadura prebenitu eta kontrolatzeari dagokionez.

- Funtsezko ekarpena egiten du biodibertsitatea eta ekosistemak babesteko eta lehengoratzeko ingurumen-helburua betetzeko bidean, 2020/852 Erregelamenduko 15. artikuluari jarraikiz.

- Aurreko bakar bat ere ez.

**Horregatik, proiektuari dagokion jarduketak (ekainaren 29ko 477/2021 Errege Dekretua) funtsezko ebaluazio baten beharra dauka biodibertsitatea eta ekosistemak babestu eta lehengoratzeko helburuari dagokionez. Eta beraz, laguntzaren xede den proiektuak funtsezko ebaluazio baten beharra dauka. Eskatzaileak funtsezko ebaluazio hori idatziz bete behar du, helburua zenbateraino betetzen den ebaluatzeko (jarraian).**

*[Eskatzaileak atal hau bete behar du; nola bete behar duen errazteko jarraibideak eranstean dira]*

Espero al da proiektuak (i) ekosistemen kondizio egokiak eta erresilientzia nabarmen kaltetzea<sup>10</sup>; edo (ii) habitat eta espezieen kontserbazio-egoeraren kalterako izatea, bereziki EBrentzat interesgarri direnei dagokienez?

- Bai. Proiektua atzera botako litzateke.  
Ez. *Eman funtsezko justifikazio bat proiektuak DNSH printzipioa zergatik betetzen duen azaltzeko, biodibertsitatea eta ekosistemak babestu eta lehengoratzeko helburuari dagokionez.*
- 

#### Jarraibideak

*Honako kasu hauetan justifikatutzat jotzen da proiektuak DNSH printzipioa betetzen duela, biodibertsitatea eta ekosistemak babestu eta lehengoratzeko helburuari dagokionez.*

- *Proiektua Ingurumen Inpaktuko Adierazpenaren edo aplikatzekoa zaion ingurumen-figuraren jabe bada.*
- *Proiektua salbuetsita badago Ingurumen Inpaktuko Adierazpena edo aplikatzekoa zaion ingurumen-figura aurkeztetik.*

*Eskatzailearentzat ezinezkoa bada, aurreko kasuen bitartez DNSH printzipioa betetzen duela justifikatzea, justifikazio bat eman beharko du, proiektua ekosistemen kondizio egokien eta erresilientziaren edo habitat eta espezieen kontserbazio-egoeraren kalterako ez dela egiaztatzeko, EBrentzat interesgarriak direnei dagokienez bereziki.*

Data eta eskatzailearen sinadura:

---

<sup>10</sup> Taxonomia Erregelamenduko 2. artikuluko 16. artikulua betez, «kondizio egokiak» diogunean esan nahi dugu, ekosistema bati loturik, ekosistema egoera fisiko, kimiko eta biologiko egokian egotea edo kalitate fisiko, kimiko edo biologiko egoki bat edukitzea, bere kasa erreproduzitzeko edo birsortzeko moduan, eta espezieen osaera, egitura ekosistemikoa eta funtzio ekologikoak aldatu gabe.

**DNSH kalte esanguratsurik ez eragiteko printzipioa betetzeari buruzko erantzukizunpeko adierazpena**  
**Biomasa-instalazioak**

.....  
jaunak/andreak (IFZ/AIZ: ....., komunikazio hauetarako helbidea: ....., herria: ....., PK: ....., Probintzia:....., Telefonoa ..... helbide elektronikoa: .....), bere izenean edo honako hau ordezkatzuz (sozietatearen izena: ....., IFZ: ....., helbidea: ..... herria: ....., PK: ....., Probintzia: ....., Telefonoa:....., helbide elektronikoa: .....)

Ordezkaritza honako dokumentuaren/egintzaren arabera egikaritzen da: ..... (adierazi ordezkaritza-ahalmena ematen duen dokumentua edo egintza).

<b>Jarduketaren identifikazioa (dirulaguntzaren izena)</b>	<b>477/2021 ED</b>	<i>477/2021 ED Energia-iturri berriztagarrien bidezko autokontsumoari eta biltegitzeari eta bizitegi-sektorean sistema termiko berriztagarriak ezartzeari lotutako instalazioak egikaritzeko pizgarri-programa, SEEP Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan</i>
<b>SEEParen zer osagaiari dagokio jarduera?</b>	<b>C7</b>	<i>C7: Energia berriztagarriak sortzeko jarduketak</i>
<b>SEEParen osagaiaren zein neurri (eraberritzea edo inbertsioa) dagokio jarduera? Azpineurria ere adierazi, kasuan-kasuan</b>	<b>C7.11</b>	<i>C7.11: Energia berriztagarriak sortzeko jarduketak.</i>
<b>SEEParen neurriari (eraberritzea edo inbertsioa) edo, kasuan-kasuan, azpineurriari esleitutako klima- eta ingurumen-etiketak (VI. eranskina, 2021/241 Erregelamendua).</b>	<b>030 bis</b>	<i>030 bis: Energia berriztagarria: biomasa berotegi-efektuko gasen murrizketa handiekin<sup>11 12</sup></i>

**ADIERAZTEN DU**

<sup>11</sup> Neurriaren helburua (EB) 2018/2001 Zuzentarauari jarraikiz elektrizitatea edo beroa biomasatik abiatuta produzitzearekin lotuta bada eta neurriaren helburua instalazioen berotegi-efektuko gasen emisioen gutxienez % 80ko murrizketa lortzea bada biomasaren erabilerrari esker berotegi-efektuko gasak eta (EB) 2018/2001 Zuzentarauaren VI. eranskinean ezarritako erreferentziatzko erregai fosilak murrizteko metodologiari dagokionez.

<sup>12</sup>Berotegi-efektuko gasen murrizketa handiak dituen biomasarako, instalazioa 030bis etiketari dagokiola hartuko da kontuan, ekainaren 29ko 477/2021 Errege Dekretuan zehazten den "Berotegi-efektuko emisioak biomasa-instalazioetan gutxienez % 80 murriztearen justifikazioa" txostena aurkeztuz egiaztatzen bada

Goian adierazitako jarduketarako eskaera aurkeztu duela,  
.....  
izeneko proiekturako, eta biomasa-instalazio bat barne hartzen dela proiektuan.

Biomasa-galdaretan klima-aldaketa arintzeko, kutsadura kontrolatzeko (batez ere kutsadura atmosferikoa) eta biodibertsitatearekin lotutako helburuekiko izan dezaketen afektazioa nabarmentzen da.

**Arintzea:**

Proiektuaren garapenean 2015/1189 Erregelamendua izan da kontuan<sup>13</sup>.

**Kutsadura:**

Honako hauek bermatzen ditu jarduketak:

- Airearen kalitateari buruzko zuzentarauak (2008/50/EB Zuzentaraua<sup>14</sup> eta 2004/107/EC Zuzentaraua<sup>15</sup>) ezarritako aire-kalitatearen kalitate-estandarrek betetzen direla<sup>16</sup>, 2284/2016 Zuzentarauak ezarritako konpromisoak bezala, baita zuzentaru horiek ezartzen dituzten helburuak betetzen direla ere, bereziki airearen kalitatea atxikitzea kalitate hori ona denean, edo kalitate hori hobetzeko gainerako kasuetan. Efizientzia handiko diseinu ekologikoa ere bete beharko da.
- Airearen kalitateari eta atmosferaren babesari<sup>17</sup> buruzko azaroaren 15eko 34/2007 Legearen IV. eranskina eguneratzen duen errekontza-instalazio ertainetatik eratorritako agente kutsatzaile jakin batzuen atmosferarako emisioak mugatzeari buruzko abenduaren 22ko 1042/2017<sup>18</sup> Errege Dekretua betetzen dela (MW 1etik gorako eta 50 MW-tik beherako instalazioetarako soilik).

**Biodibertsitatea:**

Proiektuak bermatzen du betetzen dituela 29.-31. artikuluetan ezarritako berotegi-efektuko emisioen jasangarritasun- eta aurrezpen-irizpideak eta energia berriztagarriei buruzko 2018/2001/EB<sup>19</sup> (REDII) zuzentarauaren 26. artikuluan ezarritako elikagaietan eta pentsuetan oinarrituko bioerregaiei buruzko arauak, eta lotutako egintza delegatu eta egikaritzapenekoak.

*[Dokumentu honen adierazpenak, ekainaren 29ko 477/2021 Errege Dekretuaren betekizunen artean daude. Dokumentu hau sinatuz, eskatzaileak deialdiko oinarriak betetzen dituela berresten du].*

---

<sup>13</sup> <https://www.boe.es/doue/2015/193/L00100-00114.pdf>.

<sup>14</sup> <https://www.boe.es/buscar/doc.php?id=DOUE-L-2008-81053>

<sup>15</sup> <https://eur-lex.europa.eu/LexUriServ/LexUriServ.do?uri=OJ:L:2005:023:0003:0016:ES:PDF>

<sup>16</sup> <https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/?uri=celex%3A32016L2284>

<sup>17</sup> <https://www.boe.es/buscar/doc.php?id=BOE-A-2017-15368>

<sup>18</sup> <https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-2007-19744>

<sup>19</sup> <https://www.boe.es/doue/2018/328/L00082-00209.pdf>

Data eta eskatzailearen sinadura:

## Eraikuntza- eta eraispén-hondakinen % 70a betetzen dela egiaztatzea, 100 kW-ko potentzia izendatua gainditzen duten instalazioetarako

.....  
 jaunak/andreak (IFZ/AIZ: ....., komunikazio hauetarako helbidea: ....., herria: ....., PK: ....., Probintzia: ....., Telefonoa ....., helbide elektronikoa: ....., bere izenean edo honako hau ordezkatuz (sozietatearen izena: ....., IFZ: ....., helbidea: ....., herria: ....., PK: ....., Probintzia: ....., Telefonoa: ....., helbide elektronikoa: .....

Ordezkaritza honako dokumentuaren/egintzaren arabera egikaritzen da: ..... (adierazi ordezkaritza-ahalmena ematen duen dokumentua edo egintza).

### AKREDITATZEN DU

Ekainaren 29ko 477/2021 Errege Dekretuari lotutako laguntzen ..... pizgarri-programarako eskaera aurkeztu duela, ..... izeneko proiektua egikaritzeko.

Egikaritu beharreko proiektuak betetzen duela egindako obra zibiletan sortutako eraikuntza- eta eraispén-hondakinen % 70eko balorizazioa.

Laburpen-memoria bat aurkezten da jarraian, sortutako hondakinen ezaugarriekin<sup>20</sup>:

Sortutako hondakina	LER kodea <sup>21</sup>	Sortutako hondakinen kopurua, guztira		Helmugako kudeatzailea <sup>22</sup>	Balorizazio-ehunekoa
		m <sup>3</sup>	t		

Helmugako kudeatzaileen ziurtagiriak erantsiko zaizkio dokumentu honi.

Data eta eskatzailearen sinadura:

<sup>20</sup> Balorizatu ezin daitezkeen hondakin arriskutsuak ez dira kontuan hartuko helburu hori lortzeko.  
<sup>21</sup> LER Kodea txertatuko da, hondakinak balorizatu eta deuseztatzeko eragiketarako eta hondakinen Europako zerrenda argitaratzen dituen otsailaren 8ko MAM/304/2002 Aginduari jarraikiz.  
<sup>22</sup> Helmugako kudeatzaileek emandako ziurtagiriak bidali behar dira.